



Gipuzkoako Ur Kontsortzioa
Gipuzkoako Urak

Blanca Vinuesa eraikina
Portuetxe, 16 - 1. solairua
20018 Donostia
Tfnoa: 902 30 22 22 - Faxe: 943 69 70 50
www.gipuzkoakour.com



GIPUZKOAKO URAK, E.A. ENPRESAREN KONTRATATZEKO BARNE- INSTRUKZIOAK



SARRERA

1. Art.- Xedea eta aplikatzeko eremua
2. Art.- Kontrataziorako organoak
3. Art. – Lehendakariaren eskumenak
4. Art. – Zuzendari-Gerentearen eskumenak
5. Art. – Kontratastaren ahalmena eta kaudimena
6. Art. – Obra-kontratuak 500.000 eta 5.548.000 € artekoak edo beste motatako kontratuak 100.000 eta 221.000 € artekoak.
7. Art. – Obra-kontratuak 40.000 eta 500.000 € artekoak edo beste motatako kontratuak 15.000 eta 100.000 € artekoak.
8. Art. – Obra-kontratuak 40.000,00 baino kopuru txikiagoak edo beste motatako kontratuak 15.000 € baino txikiagoak.
9. Art. – Kontratazio-espedientearen hasiera.
10. Art. – Kontrataziorako oinarriak
11. Art.- Konfidentzialtasuna
12. Art. - Gardentasuna
13. Art.- Eskaintza esleipenduna aukeratzea
14. Art. - LCSE aplikatzeko eremuan prozedura posibleak
15. Art. - SPKL aplikatzeko eremuan prozedura posibleak
16. Art. – Prozeduren publizitatea
17. Art. – Pleguen edukia
18. Art. – Proiektuen gainbegiratze unitatea
19. Art. – Kontratuak betetzeko kontrola
20. Art.- Kontratazioko mugak
21. Art. – Instrukzio hauetan erregulatutako kontratuen zuzenbidezko izaera
22. Art. – Indarrean sartzea.



SARRERA

GIPUZKOAKO URAK, E.A. merkataritza izakerako erakunde instrumental bat da udal zerbitzu publikoen kudeaketarako (uraren hornidura eta saneamendua), merkataritza-sozietate bat zeinen bere kapital soziala GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAren da.

2001. urtean GIPUZKOAKO URAK, E.A.-ek kontratatzeke barne prozedura bat egin zuen empresa honek egingo zituen kontratazio guztientzat aplikagarria zena, 48/1998 Legearekin batera, ura, energia, garraioak eta telekomunikazio arlotan kontrataziorako prozedurei buruzkoa.

Urte hauetan zehar, kontratazio publikorako araudia hainbat alditan aldatua izan da, aldaketa garrantzitsuena 9/2017 Legeak eragindakoa izan da, Sektore Publikoko Kontratuena (aurrerantzean SPKL), eta 31/2007 Legeak, ura, energia, garraioak eta posta-zerbitzuen alorreko kontrataziorako prozedurei buruzkoa (aurrerantzean LCSE), lehen aipatutako 48/1998 legea indargabetu zuena.

GIPUZKOAKO URAK, E.A.-en izaera juridikoak eta bere jarduteagatikako sektoreak, bere kontrataziorako prozedurak aipatutako bi legeen baitan egotea zehazten dute, zeren aplikazio-eremu ezberdina dute.

Aipatutako araudian ezarrita dagoen bezela, GIPUZKOAKO URAK, E.A. ospatzen dituen kontratuetan, LCSE bete behar dute, elkartutako kontratuak izan ezik (obratarako 5.548.000 € edo hornikuntzetan 221.000 €)

Aurreko kontsiderazioak kontutan hartuta, kontratatzeke ondorengo barne-instrukzioak ezartzen dira SPKL-ren baitan dauden kontratuentzat, 321 eta 322 artikulua betez, eta komegarria ikusten da LCSE-n baitan daudenei ere zabaltzea.

1. Art.- Kontratatzeko barne-instrukzioen helburua eta aplikazio-eremua.

Instrukzio hauen helburua GIPUZKOAKO URAK, E.A.-en kontratatzeke barne-prozedura erregulatzea da, publikotasuna, konkurrentzia, gardentasuna, konfidentzialtasuna, berdintasuna, eta diskriminaziorik gabeko printzipioei jarraituta, SPKL-ren 191 artikulua betez.

Instrukzio hauek nahitaez betebeharrekoak dira GIPUZKOAKO URAK, E.A.-en barne-eremuan, eta aplikatuko dira bakarrik SPKL edo LCSE-n baitan dauden kontratuei.

Instrukzio hauetan aipatutako kopuru guztiak BEZ-a sartu gabe ulertzen dira, eta kontratuaren balioetsitako baloreari adierazita aurreko parrafoan aipatutako araudiaren arabera, beste edozer zehaztu ezean.

2.- Art.- Kontratazio organoa.



GIPUZKOAKO URAK, E.A.-eko kontratazio organoak Administrarritza Kontseilua, Lehendakaria eta Zuzendari-Gerentea dira, ahalordetze gehigarriak eman daitezkeen kalterik gabe.

3.- Art.- Lehendakariaren eskumena.

GIPUZKOAKO URAK, E.A.-eko Lehendakariak honako kontratuak onartzeko, lizitzeko eta esleitzeko eskumena izango du:

a) Nolanahi ere, 500.000 € baino kopuru handiagoa ez denean, beti ere Ziklo Integraleko Inbertsio Planean aurreikusitako obrak direnean.

b) Kontrataziorako presa edo larrialdia egongo balitz, SPKL-ko 119 artikulua arabera, edozein zenbatekoak, ondoren Kontseilu Administraritzak ospatuko duen lehen bileran kontu emanez.

4. Art. – Gerentearen eskumena.

GIPUZKOAKO URAK, E.A.-eko Gerenteak honako kontratuak onartzeko, lizitzeko eta esleitzeko eskumena izango du:

a) Nolanahi ere, 250.000 € baino kopuru handiagoa ez denean, beti ere Ziklo Integraleko Inbertsio Planean aurreikusitako obrak direnean.

b) Kontrataziorako presa edo larrialdia egongo balitz, SPKL-ko 119 artikulua arabera, edozein zenbatekoak, ondoren Kontseilu Administraritzak ospatuko duen lehen bileran kontu emanez.

c) 40.000 € baino kopuru gutxiagoko obra-kontratuak Gerenteak Zuzendarien esku utzi ditzazke eta zenbatekoa 6.000 € baino gutxiago denean Azpiegituren Garapenerako Buruarengan.

Gainontzeko kasu guztietan, kontratazio organoa Administrarritza Kontseilua izango da.

5. Art. – Kontratazioaren ahalmena eta kaudimena.

GIPUZKOAKO URAK, E.A.-ekin jarduteko gaitasun osoa duen edozein persona fisikoak edo juridikoak kontratatu dezake, sektore publikoarekin kontrataziko SPKL-ko 60. artikuluan ezarritako inongo debekuetan erorita ez dagoenean eta zehaztutako kaudimen baldintzak betetzea egiaztatzen duenean, kasua denean, Baldintza Pleguetan. Baldintza huek konkurrentzia, berdintasuna eta diskriminazio gabeko printzipioak babestuz zehaztuko dira, eta kontratuaren xedeari lotetsita egon behar dute eta horiekiko proportzionalak izan.

6. Art. – Obra-kontratuen kopurua 500.000,00 € eta 5.548.000,00 € artekoa edo beste motako kontratuak 100.000 € eta 221.000 € artekoak.



Ondorengo prozedurazko tramiteak bete beharko dira:

a) Kontratazio espedientea hasi, gutxienerako ondorengo alderdiak barne dituela:

- Eskumeneko kontratazio organoa
- Kontratuaren xedea
- Obra-Kontratuetan, GIPUZKOAKO URAK, E.A.-eko proiektua Ustiapen Zuzendariak gainbegiratuta. Hornidura edo Zerbitzuen kasuetan, hornidura edo zerbitzuen baldintzak.

- Kontratuaren balioetsitako balorea
- Lizitazioaren aurrekontua
- Kontratu-mota
- Adjudikazio-prozedura
- Publizitatea

b) Preskripzio Teknikoak eta Ekonomiko-Administratibo Baldintzen Plegua.

c) Gastuei aurre egiteko ahalmen ekonomikoa dagoen txostena.

d) Kontratazio organoaren onarpena.

e) Eskaintzak aurkezteko epea bukatu ondoren plikak irekiko dira baldintzen pleguan zehaztutako prozeduraren eta aurkeztutako eskeintzen ebaluazioaren arabera, eta kontratuaren xedeari buruzko beharrezko jotzen diren hainbat txosten tekniko edo ekonomiko eskatu daitezke.

f) Eskaintzak ebaluatuta, dagokion adjudikatzeko proposamena jaulkiko zaio dagokion kontratazio organoari.

g) Kontratazio organoak, adjudikatzeko proposamena ikusita, lizitazioa huts deklaratu dezake, adjudikatu aurretik alde batera utzi edo puntu-kopuru onena lortu duen lizitatuarekin kontratua adjudikatu aurretik eskaintzak ebaluatzeko ezarritako irizpide objektiboen arabera. Kontratazio organoak kontratua formulatutako proposamenari jarraituz ez badu adjudikatzen bere erabakiaren arrazoiak eman beharko ditu.

h) Kontratazio organoek ezin dute hitzez kontratatu, larrialdi kasuetan ez bada behintzat. Kontratua idatziz egingo da, eta bertan jaso behar dira, gutxienez, ondorengo alderdiak (pleguetan jasota egonik ezean).

1. Aldeen identifikazioa.



2. Kontratua izenpetzeko siñatzaileen ahalmen-ziurtagira.

3. Kontratuaren xedearen definizioa.

4. Kontratuari aplikagarri zaion legediaren erreferentzia.

5. Kontratua osatzen duten dokumentuen zerrenda. Zerrenda hau hierarkikoki egon daiteke, kasu horretan, eta ageriko akatsarik ezean, esandako hurrenkera erabiliko da dagokion lehentasuna gordetzeko, dokumentu ezberdinen artean kontraesanak dauden kasuetan.

6. Benetako prezioa, edo zehazteko modua.

7. Kontratuaren iraupena edo egiteko eta bukatzeko balioetsitako datak, baita luzapena edo luzapenak, aurreikusita baldin badaude.

8. Harrera baldintzak, zerbitzuen ematea edo onarpena.

9. Ordainketaren baldintzak.

10. Ebazpena dagozkion supostuak.

Kontratu-dokumentuak ezingo ditu aldeentzat eskubideak eta betebeharrak ezartzen dituzten estipulazioak sartu hauek pleguetan aurreikusitako ezberdinak badira, zehaztuta, bere kasuan, adjudikatzailerearen proposamenetik datozen moduan, edo kontratua adjudikatzeko momentuan zehaztutakoak prozeduran ekindakoaren arabera, haiek ez badaude.

7. Art. - Obra-kontratuen kopurua 40.000,00 € eta 500.000,00 € artekoa edo beste motako kontratuak 15.000 € eta 100.000 € artekoak.

Ondorengo prozedurazko tramiteak bete beharko dira:

a) Kontratazio espedientea hasi, honek gutxienerako ondorengo alderdiak barne dituela:

- Eskumeneko kontratazio organoa
- Kontratuaren xedea
- GIPUZKOAKO URAK, E.A.-eko proiektua Ustiapen Zuzendariak gainbegiratuta (edo hornidura edo zerbitzuaren baldintzak izatekotan).
- Kontratuaren balioetsitako balorea
- Litzitazioaren aurrekontua



- Kontratu-mota
- Adjudikazio-prozedura: irekia
- Publizitatea: web

b) Preskripzio Teknikoak (Erregelamendu Teknikoa) eta Ekonomiko-Administratibo Baldintzen Plegua (Obra-Kontratueta). Gainontzeko kasuetan Hornidura edo Zerbitzuaren baldintzak.

c) Gastuei aurre egiteko ahalmen ekonomikoa dagoen txostena.

d) Lizitatzeko eskumena duen kontratazio organoaren onarpena.

e) Obra-kontratueta, proposamenak GIPUZKOAKO URAK, E.A.-eko web orriaren bitartez aurkeztuko dira, eta eskaintzaileek beraien prezioak proposatuko dituzte horretarako sortutako aplikazioaren bitartez. Aurretik, empresa eskaintzaileak aplikazioan alta emanda egon beharko du. Kontratazio organoek enpresen Altak eta Bajak emango dituzte bere jarduteko gaitasuna aldizka egiaztatuz, eta bereziki SPKL-n 60 art-ren zenbait suposuetan barne ez egotea. Hornidura eta zerbitzuen kontratueta proposamenak GIPUZKOAKO URAK, E.A.-eko Bulegoetan aurkeztuko dira paperean edo modu digitalean.

f) Obra-kontratueta, plika-irekierak prozedura elektronikoa, publikoa eta gardena izango du, non eskaintzaile bakoitzak gainontzeko lehiakideen proposamen ekonomikoa aztertze aukera izango du. Hornidura eta zerbitzuen kontratueta plika-irekiera GIPUZKOAKO URAK, E.A.-eko Bulegoetan egingo da.

g) Kontratazio organoak, adjudikatze-proposamena ikusita, lizitazioa huts deklaratu dezake, adjudikatu aurretik alde batera utzi edo puntu-kopuru onena lortu duen lizitatzaileri kontratua adjudikatu aurretik eskaintzak ebaluatzeko ezarritako irizpide objetiboen arabera. Kontratazio organoak kontratua formulatutako proposamenari jarraituz ez badu adjudikatzen bere erabakiaren arrazoiak eman beharko ditu.

h) Kontratazio organoek ezin dute hitzez kontratatu, larrialdi kasuetan ez bada behintzat.

Kontratua idatziz egingo da (hornidura eta zerbitzuaren kasuetan dagokion eskaera orriaren bitartez), bertan jaso behar dira, gutxienez, ondorengo alderdiak (pleguetan jasota egonik ezean).

1. Aldeen identifikazioa.
2. Kontratua izenpetzeko siñatzaileen ahalmen-ziurtagiria.
3. Kontratuaren xedearen definizioa.
4. Kontratuari aplikagarri zaion legediaren erreferentzia.



5. Kontratua osatzen duten dokumentuen zerrenda. Zerrenda hau hierarkikoki egon daiteke, kasu horretan, eta ageriko akatsarik ezean, esandako hurrenkera erabiliko da dagokion lehenetasuna gordetzeko, dokumentu ezberdinen artean kontraesanak dauden kasuetan.

6. Benetako prezioa, edo zehazteko modua.

7. Kontratuaren iraupena edo egiteko eta bukatzeko balioetsitako datak, baita luzapena edo luzapenak, aurreikusita baldin badaude.

8. Harrera baldintzak, zerbitzuen ematea edo onarpena.

9. Ordainketaren baldintzak.

10. Ebazpena dagozkion supostuak.

Kontratu-dokumentuak ezingo ditu aldeentzat eskubideak eta betebeharrak ezartzen dituzten estipulazioak sartu hauek pleguetan aurreikusitako ezberdinak badira, zehaztuta, bere kasuan, adjudikatzaillearen proposamenetik datozen moduan, edo kontratua adjudikatzeko momentuan zehaztutakoak prozeduran ekindakoaren arabera, haiek ez badaude.

8. Art. – Obra kontratuen kopurua 40.0000 € baino gutxiago denean edo beste motatako kontratuak 15.000 baino gutxiagokoak.

Kontratu hauetan, nahikoa izango da gastua onartzea, eskaera egitea eta faktura eranstea. Gastua obra bati badagokio, bere aurrekontua ere erantsiko zaio. Idatziz egin beharko dira edozein berariazko arauak horrela eskatzen duenean.

9. Art. – Kontratazio-espeditarearen hasiera

Obrak kontratatzeko espediente guztiak kopurua 40.000 € baino handiagokoa denean, Behar eta Egokitasun Txostena (BET) dagokion Prozesuaren aldetik eginez hasiko dira, non gutxienez sartuko da, beharra, kontratuaren xedea, aurrekontua eta balioetsitako epea.

Prozesu proposatzaileko Zuzendariak bai BET-a eta bai aipatutako txostena onartu beharko ditu.

Kontratazio Organoak, BET jaso ondoren, kontratazio-espeditarearen dokumentazioa berraztertuko du eta bere tramitazioa bukatu arte sustatuko du.

Zerbitzu Teknikoak dira GIPUZKOAKO URAK, E.A.-eko arloak zeinen, Erakundearen antolamoldetik eratorritako arduren banaketaren arabera, kontratazio-espeditatea betetzeko kudeaketari buruzko ardura dutenak supostu bakoitzean proposatutakoak.

Art. 10. - Kontratazio oinarriak



GIPUZKOAKO URAK, E.A.-ek bere kontratazio prozeduretan publizitatea, lehia, gardentasuna, konfidentzialtasuna, berdintasuna eta diskriminazio ezaren printzipioak bete beharko ditu urriaren 30eko, 31/2007 Legeak zehazten duen moduan, ura, energia, garraioak eta posta-zerbitzuen alorreko kontrataziorako prozedurei buruzkoa bere aplikatze eremuan, eta aplikagarri zaizkion Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateginaren aginduetan, ondorengo artikuluetan zehaztutakoak.

11. Art. – Konfidentzialtasuna

1. Interesa duten enpresei xedapen teknikoak adierazterako unean, sailkatzerakoan eta aukeratzekoan eta kontratuak esleitzerakoan, kontratazio organoak baldintzak jarri ditzazke ematen duen informazioaren konfidentzialtasun izakera babesteko zuzendurikoak.

2.- Adjudikatze publizitateari buruzko legezko xedapenen kaltetan gabe eta hautagaiei eta lizitatzaleei eman behar zaien informazioari buruz, GIPUZKOAKO URAK, E.A.-ek ezin izango du enpresariak emandako informazioa hauek konfidentziala bezala izendatutakoa zabaldu; izakera honek eragina du, bereziki, sekretu tekniko edo komertzialengan eta eskaintzen alderdi konfidentzialengan.

3.- Kontratazio kontratua egiteratzea dela eta izakera konfidentziala duen informazioa errespetatu beharko du aipatutako izakera pleguetan edo kontratuan eman zaionean, edo bere izaera beragatik modu horretan tratatua izan behar duenean. Betebehar honek bost urteren epean mantendu beharko du informazioaren berri izatetik hasita, pleguak edo kontratuan epe handiagoa jarri ezean.

12. Art. – Gardentasuna

1. GIPUZKOAKO URAK, E.A.-ek pertsona fisiko edo juridiko orori zeinen eskubideak eta interes legitimoak kaltetuta gerta daitezkenean edo kontratazio prozeduretan hartu beharreko erabakietan eraginda gertatu daitezkenean, eta idatziz eskatzen dutenean, beharrezko informazioa emango du interesatuak erreklamazioak edo errekurtsioak jarri ahal ditzan indarrean dagoen araudiaren arabera behar bezela oinarritua, datu konfidentzialak izan ezik zeinen zabalpena legearen kontrakoa denean edo interes publikoaren arrazoiengatik behar bezala egiaztatuta informazio hori ezin denean zabaldu.

2.- Prozedurak publizitatearekin erabiltzen direnean, eta eskaintzak irizpide askoren arabera ebaluatu behar direnean, lehendabizi analizatu eta ebaluatuko dira bere haztapena balio-judizioaren pean dauden eskaintzen zatiak.

Ondoren, ekitaldi publikoan, eskaintzek lortutako puntuazioen berri emango da aurreko parrafoan ezarritakoaren arabera, eta jarraian dokumentu ebaluatzailea duten proposamenen plika-irekiera egingo da formula matematikoen aplikazio soilaren bitartez.

13. Art. – Eskaintza esleipenduna aukeratzea



1. Kontratuak kalitate-preziorik erlazio onena duen eskaintzari esleituko zaio, kontratuaren xedearekin lotetsita dauden eskaintzak balioesteko irizpideen arabera zeinen Plegu Baldintzetan daudenak edo kontratazio prozedura eraenduko duen zehaztapenetan. Balioespen irizpide bakarra erabiltzen denean, hau derrigorrez prezioa izan beharko du.

2.- Aldaketak edo hobekuntzak onartzen diren kasuetan, pleguak edo lizitazio iragarkiak zehaztu beharko dute beraien aurkezpena ze elementuei buruz edo ze baldintzetan baimenduta dagoen.

14. Art. – LCSE aplikatzeko eremuan prozedura posibleak

LCSE aplikatzeko eremuan sartutako kontratuentzat, 58 artikulua ezarritakoaren arabera, kontratazio organoak prozedura irekia, mugatua edo negoziaketarekin aukeratu dezake, aipatutako arauan erregulatzen diren bezela.

15. Art. – SPKL aplikatzeko eremuan prozedura posibleak

SPKL-ren baitan dauden kontratuak, kontratazio organoak prozedura irekia, mugatua, negoziaketarekin, zuzeneko esleipena, lehiaketa-elkarrizketa edo berrikuntzarako elkarteak aukeratu dezake.

1. Prozedura irekian, interesa duen enpresario orok proposamen bat aurkeztu dezake, lizitatzailerekin kontratuaren baldintzen negoziaketa baztertuta geratuz.

2. Prozedura mugatua, enpresarioak beraiek eskatuta eta beraien kaudimena kontutan hartuta kontratazio organoak aukeratzeko dituenak bakarrik proposamenak aurkeztu ditzakete, hautagaien kontratuaren baldintzen negoziaketa baztertuta geratuz. Prozedura hau erabiltzeko, kontratazio organoak eskuhartzera gonbidatuko dituen enpresarioen gutxieneko kopurua adieraziko du eta ezarri dezake era berean, gehieneko kopurua. Edozein kasutan ere, gonbidatutako hautagaien kopurua nahikoa izan behar du benetako lehia bermatzeko. Irizpide objektiboak eta ez diskriminatzaileak zeinen arabera aukeratu diren hautagaiak, halaber bere kasuan gutxieneko kopurua eta/edo gehienekoa, lizitazio iragarkian edo baldintza pleguetan ezarriko dira.

3. Negoziaketarekino prozeduran, esleipena kontratazio organoak behar bezala arrazoituta aukeratuak lizitatzaileri egokituko zaio, hautagai desberdinekin kontsultak egin ondoren eta kontratuaren baldintzak horietako batekin edo batzuekin negoziatuta.

4. Lehiaketa-elkarrizketa eta berrikuntzarako elkarteak, SPKL-k arautzen duen moduan erabili ahaliko dira kontratu administratiboentzat, GIPUZKOAKO URAK, E.A.-en izaera juridikoaren berezitasunetara egokituz.

5.- Zuzeneko esleipena jarduteko gaitasuna duen edozein enpresari beharrezko lanbide-gaikuntzarekin prestaketa egiteko, erabili daiteke obren kontratuak 40.000 euro baino gutxiagoko balioetsitako balorea duenean edo beste motatako kontratuak 15.000 € baino gutxiagokoetan.



16. Art. Prozeduren publikitatea

Kontratuen lizitazioaren deialdia 40.000 euro gainditzen duenean edo gainontzeko Kontratuetan 15.000 Eurotik gorakoak, GIPUZKOAKO URAK, E.A.-eko kontratatzailearen profilean iragarkia jarrita egingo da, komenigarri bada beste edozein publikitate baliobide erabiltzeko kaltetan gabe, eskaintzak prestatzeko arrazoizko epea emanek kontutan hartuz presa eta kontratatzeko erakundea.

Aurrekoa aitzitik, publikitate gabeko prozedura negoziatua erabili daiteke gutxienez hiru gaitasundun enpresario gonbidatuz kontratuaren xedea egiteko, beti ere hori posible denean, ondorengo kasuetan:

a) Aurretik publikitatearekin egindako prozeduran eskaintza irregularrak edo onartezinak aurkeztu direnean, beti ere negoziaketan eskatutako baldintza formalen arabera aurkeztu dituzten lizitatuak guztiak sartzen badira eta beraiek bakarrik eta beti ere kontratutaren baldintza originalak funtsezko aldaketarik ez duenean;

b) prozedura irekia edo mugatua jarraitu ondoren, inongo eskaintzarik edo hautagairik aurkezten ez denean, beti ere kontratutaren baldintza originalak funtsezko aldaketarik ez duenean;

c) arrazoi tekniko edo artiskiko edo eskusiba eskubideak babesteko erlacionatutako arrazoiengatik, kontratua zehaztutako enpresario bakar bati eman daitekenean;

d) aurretik sumatu ezin daitekeen arrazoiengatik eta kontratazio organoari egozgarri ez direnean, kontratua berehala egitea beharrezko denean eta beste prozedura motaren bitartez hori lortzea ezinezkoa denean;

e) kontratua sekretua izan behar duenean edo bere gauzatzea segurtasun neurri bereziki batera joan behar duenean;

f) obra osagarriak (edo zerbitzu osagarriak) direnean eta ez proiektuan ez eta kontratuan azaltzen ez direnean, baina arrazoiren batengatik gaitasundun adjudikatzaile arduratsuaren aldetik aurreikustea ezinezkoa zenean, eta obra gauzatzeko (edo zerbitzua emateko) beharrezko jotzen direnean proiektuan edo kontratuan jasota zegoen bezela aldatu gabe, eta bere egikaritzea obra nagusiaren (edo zerbitzua) kontratistaren esku uzten denean jatorrizko kontratuarentzat ezarrita dauden prezioen arabera edo, bere kasuan, kontraesankor finkatzen direnean, eta beti ere obrak eta zerbitzuak jatorrizko teknikoki edo ekonomikoki kontratutik banandu ezin direnean GIPUZKOAKO URAK, E.A.-i eragozpen larriak sortu gabe edo hobetzeko behar-beharrezkoak direnean, eta obra edo zerbitzu osagarrien metatutako zenbatekoa jatorrizko kontratuaren zenbatekoa %50a gainditzen ez duenean.

g) horniduren kasuan, hasierako hornitzaileak egindako osagarritzko emateak badira zein horniduren birjarpen partziala direnean edo erabilera arrunteko instalazioak, edo dauden hornidurak edo instalazioak gehitzeko badira, hornitzaile aldaketagatik GIPUZKOAKO URAK,



E.A. behartuta egongo balitz materiala ezaugarri tekniko ezberdinekin erostea, bateraezintasunak sorraraziz edo zailtasun tekniko gehiegizkoak erabilerarako edo mantentzeko. Halaber, hornidura baldintza bereziki onuragarrietan kontzertatutakoa bada bere jarduera komertzialak behin-betiko uzten dituen hornitzaile batekin, edo lehiaketa baten administratzaileekin, edo epaile-erabakiaren bitartez edo izaera bereko prozedura baten bitartez.

h) obrak (edo zerbitzuak) kontratazio organoaren aldetik kontratista berari esleitutakoen beste antzekoen errepikapena badira publizitatea duen prozedura batetan, beti ere oinarrizko proiektu edo aurrekontuarekin bat baldin badatoz eta jatorrizko kontratuaren xede izan direnean, hura esleitu zenetik ez badira hiru urte baino gehiago pasa, prozedura hau erabiltzeko aukera hasierako iragarkian adieraziko da eta agiango kontratu osagarri honentzako hasierako kontratuarentzat balioetsitako balorea konputatu balitz.

i) kontratua esparru-akordioaren barruan esleitzen denean zeinen bera egiteko prozedura publizitatearekin erabiliko balitz.

Publizitaterik gabeko prozeduraren bitartez kontrata dadin kasuetan, 40.000 euro baino gehiagoko kopuruetan, kontratuen esleipena kontratatzaile-profilean argitaratu beharko da.

17. Art. – Pleguen edukia

Obra-kontratuen kopurua 40.000 Eurotik gorakoa bada, baldintza ekonomiko-administratiboko plegua egin beharko da, kontratuaren oinarrizko ezaugarriak barne dituela (kontratatzeko gaitasunarekin erlazionatutako alderdiak, kaudimen teknikoa eta ekonomiko-finantzieroa, eskaintzak jasotzeko modua, esleipen irizpideak, bermeak, betetzea eta iraungipena, etab.) Kasu hauetan idatzi beharko da, era berean, xedapen teknikoen plegua, non obra-kontratuetan ordezkatu daitekeen dagokion obra proiektuarekin.

18. Art. – Proiektuen Gainbegiratze Unitatea

GIPUZKOAKO URAK, E.A.-ek Proiektuen Gainbegiratze Unitatea izango du Ustiapen Zuzendariak zuzenduta proposatzen diren proiektuak eta aldaketak kontrolatzeko eta zaintzeko, halaber beraiek betetzeko.

19. Art. – Kontratuak betetzeko kontrola

Kontratuak betetzen direla etengabe zainduko da, nahiz tramitatze fasean nahiz gauzatzean.

20. Art. – Kontratazio mugak

a) Inongo kontratistarik ezin da esleipendun izan, urte bateren epean, bi edo obra gehiagotan zeinen kopuru pilatua miloi euro gainditzten baditu,



b) Inongo kontratista ezin da egon aldi berean 5 obra baino gehiago egiten bakoitzak 40.000 mila euro gainditzen baditu.

21. Art. – Instrukzio hauetan araututako kontratuen zuzenbidezko izaera

GIPUZKOAKO URAK, E.A.-ek egiten dituen kontratutak izaera pribatukoak dira, eta prestaketa eta esleipena, urriak 30eko, 31/2007 Legeak ezarritakoaren arabera eraentzen dira, ura, energia, garraioak eta posta-zerbitzuen alorreko kontrataziorako prozedurei buruzkoa, edo, bere kasuan, 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateginari aplikagarri zaizkion xedapenetan, halaber kontrataziorako barruko instrukzio hauetan eta gehigarri, eskubide pribatuaz, eta bere ondorio eta iraungitzeari buruz, eskubide pribatuaz.

22. Art. - Indarrean sartzea

Kontrataziorako Instrukzio hauek GIPUZKOAKO URAK, E.A.-eko Web-aren Kontratzaile Profilean argitaratutako egunean indarrean sartuko dira http://www.gipuzkoakour.com/contratante/perfil_contratante.aspx, egun horretatik aurrera hasten diren kontratazio espedientei aplikatuz.